Prestakuntza duala Unibertsitatea-Enpresa: Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntzaaldiak konbinatzen dituen. Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundeen ingurune errealean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu

LAN IRTEERAK

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduatu edo Espezialistaren lan irteerak Informazio-arloan aurkitzen dira. Lan irteerarik logikoena eta bokazioaren arabera irratia, telebista eta zinemako lana da.

Graduatu hauek, halaber, irratia eta telebistak zuzentzeko nahikoa prestakuntza dute, baina normalean, Enpresa-arloko prestakuntza osagarria jasotzea aholkatzen da.

Honetaz guztiz gain, profesional hauek enpresa handietako prentsa-departamentuetan ere jardun dezakete, barne- eta kanpo-komunikazioko funtzioak garatuz. Era berean, oposizio

zein kontratazio bidez, hainbat Erakunde Publikotako prentsa-kabineteetan lan egiteko aukera ere badute.

Honakoak lirateke profesional hauen lanlekuak: telebista eta bideoko produkzio-etxeak, telebista-kateak (tokikoak, pribatuak, publikoak...), kable-sareak, multimediako taldeak, argitaletxeak.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa). **Ibilbide duala**
- * Mondragon Unibertsitate. **Ibilbide duala**
- * Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- * Antonio Nebrijakoa Unibertsitatea
- * Atlantikoko Unibertsitate Europarra
- * Balear Uharteetako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Burgosko Unibertsitatea
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Cardenal Herrera Unibertsitatea
- * Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- * Comillas Eliz Unibertsitatea
- * Coruñaiko Unibertsitatea
- * Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea
- * Enpresaren Nazioarteko Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Fernando Pessoa Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatea
- * Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Malagako Unibertsitatea
- * Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitatea
- * Pompeu Fabra Unibertsitatea
- * Ramón Llul Unibertsitatea
- * Rovira I Virgili Unibertsitatea
- * Salamancako Eliz Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- * San Jorge Unibertsitatea

- * San Pablo Unibertsitatea
- * Santiagoko Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Vigoko Unibertsitatea
- * Villanuevako Nazioarteko Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Mondragon Unibertsitatea](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIOKO GRADUA

Informazio eta Dokumentazioko graduatuak liburutegi eta artxiboetan lan egingo du, informazio / dokumentazioaren kudeatzaile edo edukien kudeatzaile lanean. Garatuko dituen gaitasunak informazio, dokumentazio eta erabiltzaileen zerbitzuen ingurukoak izango dira. Graduatuak, liburutegi eta artxiboetako informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko erabiltzen diren tresna espezifikoak ezagutuko ditu eta hauen erabilera menderatuko du.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Informazio eta Dokumentazioko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA Salamancako Unibertsitateko ikasketa plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	42	18	0	0	60
2	24	24	12	0	60
3	0	48	12	0	60
4	0	36	18	6	60
Guztira	66	126	42	6	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Liburuaren Historia. 6 kreditu
- . Informazio eta Dokumentazioaren Etika. 6 kreditu
- . Zuzenbide Publikorako Sarrera. 6 kreditu
- . Bibliografia eta Informazio-iturriak. 6 kreditu
- . Dokumentu-analisirako Sarrera. 6 kreditu
- . Lan Akademikoak Egitea eta Erakustea. 6 kreditu
- . Informatikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Bildumak Informazio-unitatetan. 6 kreditu
- . Erabiltzaileentzako Zerbitzuak Informazio-unitatetan. 6 kreditu
- . Informazio eta Dokumentaziorako Sarrera. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Zuzenbide Pribaturako Sarrera. 6 kreditu
- . Datu-baseak. 6 kreditu

- . Dokumentu Elektronikoen Kudeaketa. 6 kreditu
- . Informazio eta Dokumentazioari Aplikaturako Estatistika. 6 kreditu
- . Baliabide Bibliografikoen Sarrera eta Deskribapena. 6 kreditu
- . Gardentasuna eta Informazioa Sarbidea. 6 kreditu
- . Sare Informatikoak. 6 kreditu
- . Dokumentuak Sailkatzea eta Baloratzea. 6 kreditu
- . Eduki Dokumentalak Antolatzea eta Irudikatzea. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Unitateen Sustapena eta Nortasun Digitala. 6 kreditu
- . Indizatze-teknikak eta Informazioaren Berreskuratzea. 6 kreditu
- . Informazio-unitateen Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Metadatuak eta Artxiboaren Deskribapena. 6 kreditu
- . Informazio Digitalaren Ekoizpena eta Zabalkundea. 6 kreditu
- . Dokumentuen Kontserbazioa. 6 kreditu
- . Ikerkuntza Teknika eta Metodoak. 6 kreditu
- . Informazioaren Berreskuratze Automatizatua. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Practicum. 12 kreditu
- . Bibliometria eta Katalogoen Ebaluazioa. 6 kreditu
- . Katalogoen Mantentzea eta Ebaluazioa. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

LAN IRTEERAK

Gradu honek dokumentalista eta informazioaren kudeatzaileak sortzen ditu, hauek ondorengoetan egingo dute lan: komunikabideetan, administrazio publikoan, ospitaleetan eta beste hainbat erakundetan. Profesional honek erakunde askotako informazio zerbitzuen plangintza eta zuzendaritza bideratu ditzake. Liburutegien zuzendaritza, administrazio eta antolaketarako gaitasuna izango du, baita ikerkuntza eta irakaskuntzan lan egiteko ere.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Coruñako Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Leongo Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

Ondokoetan jarduten dira profesional hauek: jarduera fisikoaren irakaskuntzan, ongizateko eta gizarte-gozamenerako jarduera fisikoarekin zerikusirik duen guztian eta gorputzeko gaitzak dituztenen berreziketari dagokionean. Halaber, ariketa eta kultura fisikoaren inguruko azterlan eta proiektuak egiten ditu, kirol- eta heziketa-jardueraren arloko kudeaketa-, plangintza- eta koordinazio-lanak garatuz.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 4 urte irauten du eta ikasketan 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA: UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	18	12	30	0	0	60
2	18	12	30	0	0	60
3	0	0	48	12	0	60
4	0	0	18	36	6	60
Guztira	36	24	126	48	6	240

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Jarduera Fisikoan eta Kirolean Aplikaturako Giza-anatomia. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Oinarri Biomekanikoak. 6 kreditu
- . Praxiologia Motorraren Oinarriak. 6 kreditu
- . Oinarrizko Heziketa Fisikoa. 6 kreditu
- . Gorputz Adierazpena eta Dantza. 6 kreditu
- . Gimnastika eta Judoaren Oinarriak. 9 kreditu
- . Euskal Pilota eta Tenisaren Oinarriak. 9 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Historia. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Psikologia. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Heziketa. 6 kreditu
- . Estatistika eta Ikerketaren Oinarriak Jarduera Fisikoan eta Kirolean. 6 kreditu

- . Naturako Jardueren Oinarriak. 6 kreditu
- . Atletismoa eta Igeriketaren Oinarriak. 9 kreditu
- . Saskibaloia eta Boleibolaren Funtsak. 9 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Oinarri Fisiologikoak. 6 kreditu
- . Motor-jokoak. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Oinarritzko Legeria. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Soziologia. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Osasunerako Jarduera Fisikoa eta Nutrizioa. 9 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Irakaskuntza. 6 kreditu
- . Futbola eta Eskubaloien Oinarriak. 9 kreditu
- . Kudeaketa eta Aisia Jarduera Fisikoan eta Kirolean. 9 kreditu
- . Euskal Herriko Joko eta Kirol Tradizionalak: Herri Kirola eta Arrauna. 6 kreditu
- . Kirol-entrenamenduaren Metodologia. 9 kreditu

Laugarren maila:

- . Jarduera Fisiko Inklusiboa. 6 kreditu
- . Kanpoko Praktiak. 12 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 6 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Kirol-entrenamenduko minorra
- . Osasunerako eta ongizaterako jarduera fisikoko minorra
- . Jarduera fisikoen eta kirol-jardueren gestioa eta horien jolas-dimentsioko minorra

LAN IRTEERAK

Behin titulua lortutakoan, graduatuak honako eginkizun akademiko eta profesionalak burutzeko gaituta egongo dira:

- . Oinarritzko azterketa zientifikoa JFKZetan eta mugikortasunaren agerpen egituretan
- . Hezkuntza-sisteman eta bestelako esparru pedagogikoetan heziketa fisikoa irakastea
- . Osasuna eta ongizatea sustatu, mantendu eta errekuperatzeko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Vitoria-Gasteiz)
- * Deustuko Unibertsitatea
- * EUNEIZ. European University Gasteiz
- * Abat Oliba Unibertsitatea

- * Alacanteko Unibertsitatea
- * Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- * Alfontso X.a Jakituna Unibertsitatea
- * Almeriako Unibertsitatea
- * Andaluziako Loiola Unibertsitatea
- * Antonio de Nebrija Unibertsitatea
- * Atlantikoko Unibertsitate Europarra
- * Balear Uharteetako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Cardenal Herrera Unibertsitatea
- * Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- * Comillas Eliz Unibertsitatea
- * Coruñako Unibertsitatea
- * Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea
- * Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Fernando Pessoa Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Huelvako Unibertsitatea
- * Isabel I.a Gaztelakoaren Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Juan Carlos Erregearen Unibertsitatea
- * Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitatea
- * Kanarietako Unibertsitate Europarra
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Leongo Unibertsitatea
- * Lleidako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- * Malagako Unibertsitatea
- * Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Pablo Olavide Unibertsitatea
- * Pompeu Fabra Unibertsitatea
- * Ramon Llull Unibertsitatea

- * Rovira I Virgili Unibertsitatea
- * Salamancako Eliz Unibertsitatea
- * San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- * San Jorge Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Valentziako San Vicente Mártir Unibertsitate Katolikoa
- * Valentziako Unibertsitate Europarra
- * Valentziako Unibertsitate Europarra
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Vigoko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Deustuko Unibertsitatea](#)

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA (Deustu)

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduduna aditua da:

- . Jarduera fisikoa sustatzen, bizimodu osasungarrirako ohitura gisa.
- . Taldeak dinamizatzen, pertsona bakoitzaren ezaugarriei eta testuinguruari erreparatuz.
- . Giza gorputzaren ahalmenak ahalik eta gehien ateratzen, bai fisiko eta mugimendu aldetik eta bai buru aldetik.
- . Jarduera fisikoan eta kirolean oinarritutako entrenamenduak, proiektuak eta programak diseinatzen, garatzen, zuzentzen eta ebaluatzen.
- . Kirola praktikatzeko orduan, errendimendua hobetzeko irtenbideak bilatzen eta proposatzen.
- . Kiroleko diziplina bakoitzeko praktika egokia menperatzen, teoria eta praktika ezagutuz, lesioak eta beste arazo batzuk saihesteko.
- . Gorputz Hezkuntzaren irakaskuntzan trebea izaten.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 4 urte irauten du eta ikasketan 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA Deustuko Unibertsitateko ikasketa plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana + Praktiak	Guztira
1	36	24	0	0	60
2	24	36	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	12	30	18	60
Guztira	60	132	30	18	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Giza Anatomia. 6 kreditu
- . Ikaskuntza eta Garapen Motorra. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Epistemologia eta Historia. 6 kreditu
- . Uretako Jardueren Oinarriak. 6 kreditu
- . Jolas Motorra. 6 kreditu

- . Giza Motrizitatearen Biomekanika. 6 kreditu
- . Didaktika Orokorra. 6 kreditu
- . Taldeko Kirolen Oinarriak I. 6 kreditu
- . Oinarrizko Trebetasun Motorrak. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Psikologia. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Didaktika I. 6 kreditu
- . Ariketaren Fisiologia I. 6 kreditu
- . Atletismoaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Jarduera Fisiko eta Kirolaren Ikertzeko Metodologia eta Estatistika. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Soziologia. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Didaktika II. 6 kreditu
- . Ariketaren Fisiologia II. 6 kreditu
- . Jarduera Gimnastikoen Oinarriak. 6 kreditu
- . Taldeko Kirolen Oinarriak II. 6 kreditu
- . Balioei Buruzko Giza Prestakuntza. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Jarduera Fisikoa eta Kirol Egokitua. 6 kreditu
- . Gorputz Adierazpena. 6 kreditu
- . Pala eta Erraketazko Kirolen Oinarriak. 6 kreditu
- . Kirol Kudeaketa. 6 kreditu
- . Kirol Entrenamenduaren Teoria eta Praktika. 6 kreditu
- . Jarduera Fisikoa eta Osasuna. 6 kreditu
- . Natura Inguruneko Jarduera Fisikoak. 6 kreditu
- . Bertako Kirolak eta Kirol Alternatiboak. 6 kreditu
- . Borroka Kirolen Oinarriak. 6 kreditu
- . Kirol Entrenamenduaren Plangintza. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Gizarteko eta Lanbideko Etika. 6 kreditu
- . Praktikak. 12 kreditu
- . Aisia eta Jarduera Fisikoa. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 6 kreditu

Ikasleek aukera hauek izango dituzte:

- . Gaztelaniazko taldea: ikasketa guztiak gaztelaniaz egingo dituzte.
- . Euskarazko taldea: irakasgaiak gehienak euskaraz egingo dituzte, eta beharrezko kredituak egingo dituzte Eusko Jaurlaritzak euskarako C1 maila aitortzeko.

Bi taldeek izango dute, nahi izanez gero, irakasgai batzuk ingelesez egiteko modua

MINORRA

- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien irakaskuntza

. Jarduera Fisikoa eta Osasuna

LAN IRTEERAK

- . Personal training.
- . Kirol sistema ez ofizial publiko eta pribatuetako irakaskuntza.
- . Jolas eta kirol turismoko teknikaria.
- . Eskolatik kanpoko jardueren koordinazioa.
- . Kiroletako teknikaria.
- . Jarduera fisikoko programen koordinazioa populazio talde berezientzat: hirugarren adina, gazteak, desgaitasunak dituzten pertsonak, baztertuta dauden taldeak...
- . Berregokitzapena eta jarduera fisikoa agintzea.
- . Kirol zentroetako eta kirol federazioetako zuzendaritza.
- . Langileen osasuna hobetzeko zerbitzuetako enpresak.
- . Kiroletako enpresa eta programen zuzendaritza eta kudeaketa.

Eta horrez gain...

Jarduera Fisikoaren eta Kiro-laren Zientzien irakaskuntzako aipamena aukeratzen baduzu, hobeto prestatuta egongo zara:

- . Psikomotrizitatea hobetzeko programak diseinatzeko.
- . Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako hezkuntza sistema ofizialean irakasteko (Irakaskuntzako Masterra egindakoan).
- . Heziketa fisikoaren adarreko ikerketa egiteko.

Jarduera Fisikoko eta Osasuneko aipamena aukeratzen baduzu, hobeto prestatuta egongo zara:

- . 3. adineko pertsonen mantentze fisikoan jarduteko.
- . Ariketa fisikoa banaka agintzeko eta, horrela, osasuna hobetzeko.
- . Osasun zentroetako jarduera fisikoak diseinatzen parte hartzeko.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Deustuko Unibertsitatea
- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Vitoria-Gasteiz)
- * EUNEIZ. European University Gasteiz
- * Abat Oliba Unibertsitatea
- * Alacanteko Unibertsitatea
- * Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- * Alfontso X.a Jakituna Unibertsitatea
- * Almeriako Unibertsitatea
- * Andaluziako Loiola Unibertsitatea
- * Antonio de Nebrija Unibertsitatea
- * Atlantikoko Unibertsitate Europarra
- * Balear Uharteetako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea

- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Cardenal Herrera Unibertsitatea
- * Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- * Comillas Eliz Unibertsitatea
- * Coruña Unibertsitatea
- * Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea
- * Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Fernando Pessoa Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Huelvako Unibertsitatea
- * Isabel I.a Gaztelakoaren Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Juan Carlos Erregearen Unibertsitatea
- * Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitatea
- * Kanarietako Unibertsitate Europarra
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Leongo Unibertsitatea
- * Lleidako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- * Malagako Unibertsitatea
- * Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Pablo Olavide Unibertsitatea
- * Pompeu Fabra Unibertsitatea
- * Ramon Llull Unibertsitatea
- * Rovira I Virgili Unibertsitatea
- * Salamancako Eliz Unibertsitatea
- * San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- * San Jorge Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Valentziako San Vicente Mártir Unibertsitate Katolikoa
- * Valentziako Unibertsitate Europarra
- * Valentziako Unibertsitate Europarra
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Vigoko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Deustuko Unibertsitatea](#)

[EUNEIZ. European University Gasteiz](#)

Info Gaztea

KAZETARITZAKO GRADUA

Kazetaritzako graduatuaren titulua lortzera zuzendutako ikasketek honako arlo hauen inguruko prestakuntza espezializatua eskaini beharko dute: kazetaritza-informazioko jarduera landu, kudeatu eta hedatzea, eta hau guztia gai-eremu ezberdinei buruzkoak eta komunikabide ezberdinetan.

Ikasleek irrati, telebista, prentsa, internet eta multimedia teknologia berrien tresnak irizpide profesionaleraz erabiltzen ikasten dute.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Kazetaritzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordiak.

IKASKETA PLANA: UPV/EHUko ikasketa-plana (Plan berria)

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	42	6	12	0	0	60
2	12	0	48	0	0	60
3	0	0	36	24	0	60
4	0	0	24	24	12	60
Guztira	54	6	120	48	12	240

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Informazio Idazketa Prentsan. 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko Lengoaia. 6 kreditu
- . Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala. 6 kreditu
- . Gaur Egungo Munduaren Historia. 6 kreditu
- . Hizkuntzaren Erabilerak Komunikabideetan. 6 kreditu
- . Informazio Generoak. 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko Sormen Teknikak. 6 kreditu
- . Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio Estrategiak. 6 kreditu
- . Komunikazioari Aplikatutako Estatistika. 6 kreditu
- . Ingurune Ekonomikoaren Analista. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Dokumentazio Iturrien Kudeaketa. 6 kreditu
- . Informazioa Irratian. 6 kreditu
- . Kazetaritzaren Teknologia. 6 kreditu
- . Konstituzio Zuzenbidea. 6 kreditu
- . Web edukien idazkera eta sorkuntza. 6 kreditu
- . Deontologia eta Hedabideak. 6 kreditu
- . Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra. 6 kreditu
- . Informazioa Telebistan. 6 kreditu
- . Komunikazio Teoriak. 6 kreditu
- . Multimedia eta Transmedia Narratibak. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Fotokazetaritza. 6 kreditu
- . Interpretazio Generoak. 6 kreditu
- . Kazetaritza Diseinuaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Komunikazio Bulegoak. 6 kreditu
- . Informazioaren Zuzenbidea. 6 kreditu
- . Nazioarteko Harremanak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Erreporterismoa. 6 kreditu
- . Informazio Lokuzioa. 6 kreditu
- . Gradu-amaierako lana. 6 kreditu
- . Iritzi Generoak. 6 kreditu
- . Kazetaritza Espezializatua. 6 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

Prestakuntza duala Unibertsitatea-Enpresa: Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntzaaldiak konbinatzen dituen. Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundeen ingurune erreal batean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Komunikazio Zuzendaritzako Minorra
- . Prestakuntza duala Unibertsitatea-Enpresa

LAN IRTEERAK

Kazetarien lan-irtenbideak informazio-arloan aurkitzen dira. Lan-irtenbiderik logikoena eta, bokazioaren arabera, egunkari, aldizkari, irri eta telebistako landa-lana da.

Kazetariak, halaber, argitaletxe eta egunkariak zuzentzeko nahikoa prestakuntza dute, baina normalean, enpresa-arloko prestakuntza osagarria jasotzea aholkatzen da.

Honetaz guztiaz gain, kazetaritzako profesionalek enpresa handietako prentsa-departamentuetan ere jardun dezakete, barne- eta kanpo-komunikazioko funtzioak garatuz. Era berean, oposizio zein kontratazio bidez, hainbat erakunde publikotako prentsa-kabineteetan lan egiteko aukera ere badute.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
- * Abat Oliba Unibertsitatea
- * Andaluziako Loiola Unibertsitatea
- * Antonio Nebrijakoa Unibertsitatea
- * Atlantikoko Unibertsitate Europarra
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomia
- * Cardenal Herrera Unibertsitatea
- * Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- * Comillaseko Eliz Unibertsitatea
- * Enpresaren Nazioarteko Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Fernando Pessoa Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatea
- * Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatea
- * Isabel I.a Gaztelakoaren Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Lleidako Unibertsitatea
- * Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Malagako Unibertsitatea
- * Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitatea
- * Pompeu Fabra Unibertsitatea
- * Ramon Llull Unibertsitatea
- * Rovira I Virgili Unibertsitatea
- * Salamancako Eliz Unibertsitatea
- * San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- * San Jorge Unibertsitatea
- * San Pablo Unibertsitatea

- * Santiagoko Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Villanuevako Nazioarteko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

KIROL KUDEAKETAKO GRADUA

Ikasketa-planak garrantzi berezia ematen dio IKTekin eta enpresen kudeaketarekin eta administrazioekin lotutako ezagutzak eskuratzeari. Ildo horretan, teknologia berriekin eta e-sportekin lotutako irakasgaiak sartzen dira, baita kudeaketa ere, funtsezko gunea baita.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Kirol Kudeaketako graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK. Euneiz Unibertsitatea (Vitoria-Gasteiz)

Lehenengo maila:

- . Kirolaren antropologia. Teoria eta historia. 6 kreditu
- . Enpresaren ekonomia I. 6 kreditu
- . Kirolaren legeria eta gobernantza. 6 kreditu
- . Kirolen oinarriak I. 6 kreditu
- . Kirola eta osasuna. 6 kreditu
- . Kirolaren Soziologia. Oinarri sozialak eta deontologikoak. 6 kreditu
- . Ideiak eta pentsamendu garaikidea. 6 kreditu
- . Kirolaren industria. 6 kreditu
- . Kirol-ekipamenduak. Konbentzionalak eta ez-konbentzionalak. Plangintza eta ustiapena I. 6 kreditu
- . Kirol-ekitaldiak. Kudeaketa eta antolaketa I. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Enpresaren ekonomia II. 6 kreditu
- . Kirolaren kudeaketa publikoa. 6 kreditu
- . Kirolen oinarriak II. 6 kreditu
- . Kirola eta bere garapenerako lankidetzak. 6 kreditu
- . Kirola eta bere eragina lurraldean. 6 kreditu
- . Zuzenbidearen eta enpresaren oinarrizko oinarriak. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Kirol-ekipamenduak. Konbentzionalak eta ez-konbentzionalak. Plangintza eta ustiapena II. 6 kreditu
- . Kirol-ekitaldiak. Kudeaketa eta antolaketa II. 6 kreditu
- . Kirol-erakunde publiko eta pribatuak. Zuzendaritza, kudeaketa eta administrazioa. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Kontabilitate orokorra eta kostuena I. 6 kreditu
- . Kudeaketari aplikatutako teknologia eta informazio-sistemak. 6 kreditu
- . Kirolaren eta aisialdiaren merkaturatzea. 6 kreditu
- . Eragiketen zuzendaritza eta logistika. 6 kreditu
- . E-Sports I. 6 kreditu
- . Finantza eta fiskalitate zuzendaritza. 6 kreditu
- . Zuzendaritza-trebetasunak. 6 kreditu
- . Kirol-ingurune ekonomikoaren azterketa. 6 kreditu
- . Enpresa-komunikazioa, harreman publikoak eta protokoloa. 6 kreditu
- . Kirol turismoa I. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Kontabilitate orokorra eta kostuena II. 6 kreditu
- . Marketinaren oinarriak. 6 kreditu
- . Teknologia eta kirola. 6 kreditu
- . Kirol-diplomazia. 6 kreditu
- . Kirol-babesa. 6 kreditu
- . Pertsonen Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana (GAL) . 6 kreditu

LAN IRTEERAK

- Kirol-erakundeen arlo funtzionalen zuzendaritza.
- Kirol-kontsultategia eta kirol-arloko enpresa-aholkularitza.
- Kirol-zerbitzuetako enpresen kudeaketa.
- Kirol-ekipamenduen kudeaketa.
- Kirol-ekitaldien kudeaketa.
- Kirol, turismo eta kirol proiektuen kudeaketa.
- Administrazio publikoetako kirol-zerbitzuak (udalekoak, autonomia-erkidegokoak, estatukoak).

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euneiz Unibertsitatea (Vitoria-Gasteiz)
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Ramon Llull Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)
[Euneriz Unibertsitatea \(Vitoria-Gasteiz\)](#)

Info Gaztea

KOMUNIKAZIOKO GRADUA

Komunikazioko Gradua kazetari edo publizisten ohiko rolak gainditzen eta biltzen dituen komunikazioaren profil profesionala da, komunikazioaren sektorearen egungo premietara egokituta dagoen prestakuntza osoa da.

Komunikazioko Graduan ikasiko duzu:

- . Testuak, produktuak edo mezuak sortzen.
- . Mezuak aztertzen, aldatzen eta zuzentzen, bai edukiaren aldetik, bai komunikazioko eraginaren aldetik.
- . Gizarteko errealitatea interpretatzen.
- . Sen etikoz eta gizartearekiko konpromisoaz jarduten, prestakuntza humanistikoaz.
- . Hainbat testuinguru eta hizkuntzatan komunikatzen.
- . Erakundeetan barne eta kanpo komunikazioa kudeatzen.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Komunikazioko Gradua 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Gizarte eta Kultur Antropologia. 6 kreditu
- . Komunikatzeko Trebetasunak. 6 kreditu
- . Komunikazioaren Historia. 6 kreditu
- . Hedabideak. 6 kreditu
- . Informazioaren eta Komunikazioaren Teoria I. 6 kreditu
- . Marketinaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Enpresen Antolaketaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Multimedia Tresnak. 6 kreditu
- . Gizarte Ikerketarako Metodoak eta Teknikak. 6 kreditu
- . Egungo Mundua. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Gizarte Komunikazioa eta Iritzi Publikoa. 6 kreditu
- . Prentsa Idatziaren Sorkuntza eta Ekoizpena. 6 kreditu
- . Enpresen Kudeaketa eta Antolaketa. 6 kreditu
- . Komunikazio Grafikoaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Informazioaren eta Komunikazioaren Teoria II. 6 kreditu
- . Irratiko Mezuen Sorkuntza eta Ekoizpena. 6 kreditu
- . Egungo Errealitatea Interpretatzeko Bideak. 6 kreditu

- . Ahozko Komunikazioaren Lantegia. 6 kreditu
- . Erakundeetako Komunikazioaren Teoria. 6 kreditu
- . Balioei buruzko Giza Prestakuntza. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Mezuen Azterketa eta Ebaluazioa. 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko Mezuen Ekoizpena. 6 kreditu
- . Barne Komunikazioaren Kudeaketa. 6 kreditu
- . Merkatuen eta Entzule-ikusleen Ikerketa. 6 kreditu
- . Gizarteko Auzi eta Dilemak I. 6 kreditu
- . Pertsonen arteko Komunikazioa. 6 kreditu
- . Weberako Mezuen Ekoizpena. 6 kreditu
- . Publizitatea. 6 kreditu
- . Gizarteko Auzi eta Dilemak II. 6 kreditu
- . IKTen Erabilerak eta Gizarteko Eraginak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Gizarteko eta Lanbideko Etika. 6 kreditu
- . Praktikak I. 6 kreditu
- . Praktikak II. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa.

LAN IRTEERAK

- Kazetaritzako informazioko erredaktorea edozein euskarritan. Kazetaritzako profesionala edozein euskarritan (prentsa, irratia, TB, Internet), kazetaritzako edukiak sortzen lan egiten duena. Erredaktore, erreportari, aurkezle eta zuzendari zereginak egiten dira.
- Prentsa arduraduna. Erakunde publiko edo pribatu bateko prentsa kabineteko profesionala, erakundeak behar dituen informazio edo komunikazio lanak koordinatzeko eta/edo prestatzeko.
- Atarien kudeatzailea eta edukien editorea. Era guztietako edukien tratamenduan, kudeaketan eta edizioan diharduen profesionala, batez ere sistema digitalen bidez, erakunde mota guztietan.
- Gidoilaria. Batez ere ikus-entzunezko eduki komunikatiboen sortzaile hainbat formatutan (fikzioa, dokumentala, entretenigarriak, etab.) eta euskarritan (zinea, bideoa, TB, irratia, multimedia).
- Komunikazioko arduraduna erakundeetan: Euren zeregina erakunde batean (enpresa edo erakunde batean) barneko eta kanpoko komunikazioko planak eta kanpainak planifikatzen, burutzen eta kontrolatzen diharduten profesionalak.
- Publizitateko eta harreman publikoetako arduraduna. Publizitateko eta harreman publikoetako kontuen arduraduna. Publizitate eta/edo harreman publikoetako agentzia batean lanean diharduen profesionala, plan sortzaileak eta/edo bitartekoen planak prestatzen.

- Komunikazio korporatiboko kudeatzailea. Irudiaren eta komunikazio korporatiboaren kudeaketa estrategikoko arduraduna (ikusizko identitatea, kultura korporatiboa, ospe korporatiboa).

- Komunikazioko aholkularia. Komunikazio prozesuen aholkularia (publizitatea, harreman publikoa, markaren irudia, korporazio identitatea) era guztietako erakunde publiko eta pribatuetan beste batentzat. Komunikazioko zerbitzuak komunikabideei, enpresei eta erakundeiei eskaintzen dizkieten profesional independenteak.

- Irakaslea Komunikazio Zientzien gaietako. Graduak prestatu egiten du legeak lanbide horretako maila batzuetan aritzeko ezarritako graduondora edo graduondoetara sartzeko.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Deustuko Unibertsitatea (Donostia)
- * Erdi Atlantikoko Unibertsitatea
- * Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * IE Unibertsitatea
- * Kataluniako Unibertsitate Irekia (online)
- * Pablo Olavide Unibertsitatea
- * Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurjaritza. Hezkuntza Saila](#)
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)
[Deustuko Unibertsitatea](#)

KOMUNIKAZIOKO GRADUA (IKUS-ENTZUNEZKO ETA MULTIMEDIA KOMUNIKAZIOKO TEKNOLOGIAK)

Komunikazioko graduak honelako irakasgaiak ikasteko aukera ematen dizu: Multimedia tresnak, pertsonen arteko komunikazioa, Kudeaketa eta enpresen antolaketa, Prentsa idatzia sortzea eta diseinu grafikoaren oinarriak. Horrez gain, lanbideko bi ibilbideren artean aukeratzen da, interesen arabera: bata, Hedabideen arloa, mezu zuzenak hainbat euskarritan prestatzen ikasiko duzu eta hedabideen arloko enpresen funtzionamendua ikasiko duzu. Eta Enpresa eta Erakunde Komunikazioaren adarra, komunikazioko proiektuak eta marketineko planak diseinatzen ikasiko duzu.

Helburua da, gradua amaitzean, gai izatea:

- . Testuak, produktuak edo mezuak prestatzeko.
- . Mezuak aztertzeko, eraldatzeko eta zuzentzeko, bai edukiaren aldetik, bai eragin komunikatiboaren aldetik.
- . Gizarteko errealitatea interpretatzeko.
- . Sen etiko eta gizartearekiko konpromisoa jarduteko, prestakuntza humanistikoarekin bat.
- . Hainbat testuinguru eta hizkuntzatan komunikatzeko.
- . Erakundeetan barne eta kanpo komunikazioa kudeatzeko.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Komunikazioa + Ikus-entzunezko eta Multimedia Komunikazioko Teknologietako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 276 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Kanpoko praktikak	Gradu amaierako lana	Ikus-entzunezko Komunikaziorako teknologia programa	Guztira
1	54	6	0	0	0	6	66
2	6	54	0	0	0	12	72
3	0	60	0	0	0	12	72
4	0	6	42	6	6	6	66
Guztira	60	126	42	6	6	36	276

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK Deustuko Unibertsitateko ikasketa plana

Lehenengo maila:

- . Informazioaren eta komunikazioaren teoria I. 6 kreditu
- . Komunikatzeko trebetasunak. 6 kreditu
- . Komunikazioaren historia. 6 kreditu
- . Hedabideak. 6 kreditu
- . Gizarte eta kultur antropologia. 6 kreditu
- . Enpresen antolaketaren oinarriak. 6 kreditu
- . Marketinaren oinarriak. 6 kreditu
- . Egungo mundua. 6 kreditu
- . Multimedia tresnak. 6 kreditu
- . Gizarte-ikerketako metodoak eta teknikak. 6 kreditu
- . Bideo eta audio digitalak. 6 kreditu
- . Eduki digitalen industria. 3 kreditu

Bigarren maila:

- . Informazioaren eta komunikazioaren teoria II. 6 kreditu
- . Komunikazio grafikoaren oinarriak. 6 kreditu
- . Prentsa idatzia sortzea. 6 kreditu
- . Enpresen kudeaketa eta antolaketa. 6 kreditu
- . Gizarte komunikazioa eta iritzi publikoa. 6 kreditu
- . Ahozko komunikazioaren lantegia. 6 kreditu
- . Irratiko mezuen sorkuntza eta ekoizpena. 6 kreditu
- . Erakundeetako komunikazioaren teoria. 6 kreditu
- . Egungo errealitatea interpretatzeko bideak. 6 kreditu
- . Pertsonaren balioei eta aukerei buruzko prestakuntza. 6 kreditu
- . Grafikoak eta datuak bistaratzeko moduak. 6 kreditu
- . Interneteko teknologiak eta tresnak. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Mezuen azterketa eta ebaluazioa. 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko mezuen ekoizpena. 6 kreditu
- . Merkatuen eta entzule-ikusleen ikerketa. 6 kreditu
- . Barne komunikazioaren kudeaketa. 6 kreditu
- . Gizarteko auzi eta dilemak I. 6 kreditu
- . Pertsonen arteko komunikazioa. 6 kreditu
- . Web mezuak. 6 kreditu
- . IKTen erabilerak eta gizarteko eraginak. 6 kreditu
- . Publizitatea. 6 kreditu
- . Gizarteko auzi eta dilemak II. 6 kreditu
- . Telebista errealizazioa platoan. 3 kreditu
- . Ikus-entzunezko proiektuak. 3 kreditu

Laugarren maila:

- . Komunikabideak. 6 kreditu
- . Enpresa eta erakunde komunikazioa. 6 kreditu
- . Gradu amaierako lana. 6 kreditu
- . Praktiak I, II eta III. 6 kreditu
- . Gizarteko eta lanbideko etika. 6 kreditu
- . Multimedia interaktiboa eta bideojokoak. 6 kreditu

Hizkuntzak: gaztelera, euskara eta ingelesa.

LAN IRTEERAK

. Kazetaritzako informazioaren erredaktore: kazetaritzako profesionala edozein euskarritan (prentsa, irratia, TB, Internet), kazetaritzako edukiak sortzen lan egiten duena. Erredaktore, erreportari, aurkezle eta zuzendari zereginak egiten dira.

. Prentsa arduraduna: erakunde publiko edo pribatu bateko prentsa kabineteko profesionala, erakundeak behar dituen informazio edo komunikazio lanak koordinatzeaz eta/edo prestatzea arduratzen dena.

. Komunikazioko aholkularia: komunikazio prozesuen aholkularia (publizitatea, harreman publikoak, marka irudia, korporazio identitatea), era guztietako erakunde publiko eta pribatuetan, beste batzuentzat. Komunikazioko zerbitzuak komunikabideei, enpresei eta erakundeek eskaintzen dizkien profesional independentea.

. Publizitateko eta harreman publikoetako arduraduna: publizitateko eta/edo harreman publikoetako kontuen arduraduna agentziaren batean. Publizitate eta/edo harreman publikoetako agentzia batean lan egiten duen profesionala, plan sortzaileak eta/edo bitartekoen planak prestatzen.

. Komunikazioko arduraduna erakundeetan: erakunde edo enpresa batean lan egiten duen profesionala, barne eta kanpo komunikazio planak eta kanpainak planifikatzen, antolatzen, gauzatzen eta kontrolatzen.

. Gidoilaria: batez ere ikus-entzunezko eduki komunikatiboen sortzailea hainbat formatutan (fikzioa, dokumentala, entretenigarriak, etab.) eta euskarritan (zinema, bideoa, telebista, irratia, multimedia).

. Komunikazio korporatiboko kudeatzailea: korporazio irudiaren eta komunikazioaren kudeaketa estrategikoaren arduraduna (ikusizko identitatea, kultura korporatiboa, ospe korporatiboa).

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

* Deustuko Unibertsitatea (Donostia)

2025/26 ikasturteko datuak**LOTURA INTERESGARRIAK**

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Deustuko Unibertsitatea](#)

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

Kriminologiako gradu ofiziala lortzera zuzendutako ikasketek, egintza kriminalari eta ohiz kanpoko jokabideari buruzko diziplinarteko prestakuntza zientifikoa eskaini beharko dute. Titulazio ofizial honen bidez kriminologia ikasiko da ikuspuntu ezberdinetatik (psikologikoa, soziologikoa, juridikoa eta auzitegi-klinikoa). Kriminologiarekin zuzenean erlazionaturik dauden diziplinak ere landuko dira, hau da, biktimologia eta politika kriminala.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Kriminologiako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	36	0	24	0	0	60
2	12	12	36	0	0	60
3	0	0	42	18	0	60
4	0	0	12	18	18	60
Guztira	48	12	114	36	18	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Administrazio Zuzenbidea I. 6 kreditu
- . Antropologiarako Sarrera I. 6 kreditu
- . Gizarte Psikologia. 6 kreditu
- . Konstituzio Zuzenbidea I. 6 kreditu
- . Krimen Arloko Psikologia. 6 kreditu
- . Kriminologiaren Printzipioak. 6 kreditu
- . Psikologiaren Historia. 6 kreditu
- . Soziologiarako Sarrera. 6 kreditu
- . Zigor Zuzenbidea I. 6 kreditu
- . Zigor Zuzenbidea II. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Biktimologia. 6 kreditu
- . Gazte Delinkuentzia. 6 kreditu
- . Krimenaren Fenomenologia. 6 kreditu
- . Krimen Arloko Politika. 6 kreditu
- . Lege Medikuntza eta Auzitegi Zientziak. 6 kreditu
- . Psikologiako Metodologia. 6 kreditu
- . Psikopatologia. 6 kreditu
- . Zigor Zuzenbidea III. 6 kreditu
- . Zuzenbidea eta Kulturartekotasuna. 6 kreditu
- . Zuzenbide Prozesala I. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Auzitegiko Psikopatologia. 6 kreditu
- . Biktimen Análisisa eta Tratamendua. 6 kreditu
- . Datuen Análisisa eta Diseinuak: Metodo Ez-esperimentalak. 6 kreditu
- . Delitugilearen Tratamendu Psikologikoa. 6 kreditu
- . Desbideratzearen Soziologia. 6 kreditu
- . Gatazken Análisisa eta Ebazpena eta Lankidetzak Estrategiak. 6 kreditu
- . Kartzela Sistemak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Delituaren eta Zigor Kontrolaren Soziologia. 6 kreditu
- . Kanpoko praktikak. 12 kreditu
- . Zuzenbide Prozesala III. 6 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

LAN IRTEERAK

- . Polizia zientifikoko kabinetekak
- . Espetxe-irratien tratamendu batzordeko eta talde teknikoetako kide.
- . Espetxe-irratien zaintza: saillkapen-aldaketek, irteera-baimenak, baldintzapeko askatasunari, erregimen irekiari eta espetxe-onurei buruzko txostenak eta proposamenak egitea.
- . Biktimologia: lehenengo harremana biktimarekin, eta oinarritzeko artapena.
- . Segurtasun pribatua.
- . Epaitegia: delituei eta delitu-egileei buruzko datu-baseak tratatzea.
- . Adingabeen justizia
- . Bazterketa
- . Politika kriminala.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Donostia)
- * Abat Oliba Unibertsitatea
- * Alacanteko Unibertsitatea

- * Andaluziako Loiola Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Castelloko Jaime I Unibertsitatea
- * Comillas Eliz Unibertsitatea
- * Enpresaren Nazioarteko Unibertsitatea
- * Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Isabel I.a Gaztelakoaren Nazioarteko Unibertsitatea (online)
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kataluniako Unibertsitate Irekia (online)
- * Madrilgo Unibertsitate Europarra
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Madrilgo Urrutiko Unibertsitatea
- * Malagako Unibertsitatea
- * Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarra
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Pablo Olavide Unibertsitatea
- * Pompeu Fabra Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * San Antonio Unibertsitate Katolikoa
- * Santiagoko Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- * Valentziako San Vicente Mártir Unibertsitate Katolikoa
- * Valentziako Unibertsitate Europarra
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Villanuevako Nazioarteko Unibertsitatea

2025/26 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA

Lan-gaietan espezializatutako teknikaria da Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduatua: lanaren antolaketa, langileriaren kudeatzea eta, lanaren eta gizarte-segurantzaren lege-antolamendua.

Teknikari honen funtzioak izaten dira, besteak beste, aholkularitza, Lan Arloko Auzitegiaren aurrean ordezkatzea eta ondoko gaiekin zerikusia duten kudeaketa-lana: kontratazioa, lan-gatazkak, irazpenak, laneko higie- eta segurtasun-baldintzak, hitzarmen kolektiboen aholkularitza, Gizarte Segurantzaren prestazioen kudeaketa eta langileriaren kudeatzea. Lanaren antolaketa, langileriaren kudeatze zein lanaren eta gizarte-segurantzaren lege-antolamenduen tekniken teoria eta praktikan oinarritutako prestakuntza egokia ematea da Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduatuen titulua lortzera zuzendutako ikasketen helburua.

SARTZEKO BALDINTZAK

